

BITARTEAN HELDU ESKUTIK

*Bitartean heldu eskutik, eskatzen zigan,
ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi,
maitasun keinu bat besterik ez.
KIRMEN URIBE*

Ospitaleko lau horma zurien artean ilun, beltz ikusten dut nire gorputza. Egunetik egunera ahulago nago eta hasieran hain gogaikarri egiten zitzaizkidan bisiten zain ematen ditut egunak; egun aseptiko eta amaitezinak. Bada hilabete hemen nagoenetik eta jadanik galdua dut etxera, nire txokora itzultzeko itxaropena.

Lehen bi asteetan ez nuen ia denborarik izan gertatzen zitzaidanaz ohartzeko ere. Nire inguruan dena zen irribarrea, dena itxaropena eta kezkarik eza. Lagunak, lankideak, familiartekoak, denak izaten nituen inguruan hitz eta pitz. Hitz egiten ere ez zidaten uzten eta sarritan pentsatzen nuen ez zirela nire egoeraz ohartzen.

Orain aldiz badakit zer den gertatzen zena; ez zuten ikusi nahi. Jendeak nahiago izaten du ingurukoen miseriak ikusi baino beste alde batera begiratzea edota ezer gertatuko ez balitz bezala jokatzeari.

Bi jokabide horietatik zein dudan nahiago ere ez dakit orain. Gaixotu aurretik zalantzarik gabe esango nukeen jendearen hipokresia baino nahiago nukeela bakarrik egotea baino gaixotzen garenean, gure etsai nagusia bakardadea da, norberaren burua eta ez ingurukoen jokabide edo jarrera.

Medikuek, erizainek, euren jantzi zuriekin nire belztasuna areagotu baino ez dute egiten. Dena hain garbia den lekuan nire gorputza inoiz baino zikinago nabari dut.

Arebari heroina larrua jotzea bezain gozoa zela esan ohi nion garaia datorkit gogora.

Hilezkorrak ginela pentsatzen genuen, mundua aldatzeko gogo eta esperantzarik gabe bizi ginen eta zaldiak printzipiorik gabeko gazte bihurtu gintuen. Hori izan zen gure akaberaren hasiera. Ez genuen hurrengo txutetik haratago ikusten aurrera egitera bultzatzen gintuzten ideal guztiak popatik hartzera bidali genituen. Duintasuna ere galdu genuela pentsatzen dut zenbait unetan.

Orain aldiz, hementxe nago nekez berreskuratu nituen itxaropen guztiak galduta; ez dakit egindako bide gogorrek ezertarako balio izan duen. Gaixotasunaren arra zelatan egon zait denbora honetan guztian “anaia handia” bezala eta gutxien espero nuenean etorri zait zorrak kitatzera.

Lagunak familia, dena salduko nukeen garai hartan heroina apur bat lortzeagatik eta moduren batean horixe egin nuen. Lagunek ere ni bezalaxe jokatzeko zuten baina ama... oraindik ez naiz amari begietara begiratzeko gai. Egunak joan, egunak etorri, orduak eta orduak ematen ditu gajoak nire aldamenean jarrita, egiten dudak edozein mugimenduri adi eta hala ere, asko (agian gehiegi) bizi izandako pertsonen gertatu ohi zaien legez, sarritan galtzen da bere begirada lau horma zuri hauen artean.

Inoiz ez dut amari nola sentitzen nintzen esateko beharrik izan. Begietara begiratu hutsarekin jakiten zuen zer pentsatzen ari nintzen baina begirada hari ihes egiten ikasi nuen beharrak bultzatuta eta bere haurra ezezagun bihurtu zen. Gezurretan aritzeko “beharra” ere ohitura bilakatu zen azkenean eta garrantzirik gabeko galderei erantzuteko ere gezurra irteten zen ia modu naturalean ene ahotik.

Sarritan amari nola sentitzen naizen azaltzeko beharra sentitzen dut orain baina nondik hasi? Nola berreskura nezake

orain dela hainbeste urte, inoren beharrik ez nuela pentsatzen nuen garai hartan, galdutako harremana?

Sarritan esan nahi nioke lau horma hauen artean ito egiten naizela, nire gorputz usteldu honetatik ihes egin nahiko nukeela eta ez dudala hemen hil nahi. Herriko kaian, irudimenarekin itsaso barrurantz aske hegan eginez amaitu nahi ditudala nire egunak.

Noizean behin, zerbait esan nahi diodala somatuko balu bezala, zer gertatzen zaidan galdetzen dit begiak nigan pausatuz baina “ezer ere ez” xume bat bota ondoren lo plantak egiten ditut larritu ez dadin, edo agian ni ez larritzeko. Badakit ez dudala engainatzen, ez didala sinesten, baina biok, ahal dugun neurrian behintzat, jokatzeko dugu ezer gertatuko ez balitz bezala eta lasaitasun urduri bat egiten da gela zuriaren jabe.

Hala ere, ama beti hor egon izan da. Momenturik txarrenetan ere, inork nire alboan egon nahi ez zuenean ere, nire alboan egon zen nahiz eta nik txilioka bere beharrik ez nuela esaten nion. Heroina zen garai hartan nire lagun bakarra, nire maitasun bakarra, nire familia bakarra. Baina, nire ingurukoak hondoa jotzen ikusita zaldia uztea erabaki nuenean, lagunik gabe nengoen, maitasunik gabe, eta amagatik izan ez balitz, baita familiarik gabe ere. Bera zen gau amaitezin haietan, errealitatearekin kontaktua galtzen nuenean, eskutik heltzen zidana, ez joateko erregutzen zidana, nire beharra zuela belarrira xuxurlatzen zidana.

Gaur arratsaldean arreba etorri da bisitan ilobekin. Zaharrenak bost urte ditu eta gazteenak hiru. Amak behin eta berriz esan die osabari muxu emateko baina ez dira ausartu; bi hilabete hauetan hainbeste aldatu naiz ezen ez bainaute ezagutu. Ez dakit gertatzen zaidanaz jabetuko ote diren baina ziur nago

arrebak behintzat ez diela ezer ere esan, berak ere ez baititu inoiz bagiak ireki nahi izan nire aurrean. Ez zaldiarekin hasi nintzenean, ez gaisotu nintzenean eta ezta orain ere, dena amaitzen ari denean.

Arrebak hamasei urte zituen ni drogak probatzen hasi nintzenean. Hasieran ez ziren porro batzuk baino izan baina berehala aspertu nintzen hartaz ; nik sentrazio berriak bizi nahi nituen. Kostako herri txiki batean bizi izanda gainera sentrazio berri haiek nire eskura zeuden eta nire belaunaldiko gazte gehienak bezala, heroinaren atzaparretan erori nintzen ni ere. Arrebak bazekien zertan nenbilen eta amak milaka aldiz galdetu bazion ere, ez ninduen inoiz salatu. Ez zuen anai zaharra saldu nahi eta hainbeste aldiz errepikatu zion amari ez zela ezer gertatzen, ezen berak, azkenean, hori sinetsi baitzuen.

Ia ezin dut mugitu ere egin eta nire begiek ere ez dute lehen bezain ongi ikusten. Izarek milaka zauri egin dizkidate gorputzean baina ez ditut nabaritu ere egiten. Barruan daukadan zauriak sortzen dit niri ezinegona eta sueroak berriz hotza zabaltzen dit nire zain ustelduetan barrena.

Badira hiru egun lorik egiten ez dudala. Badakit edozein unetan hil naitekeela baina begiak itxiz gero, heriotzari bidea errazten diodala iruditzen zait eta ez diot inolaz ere dama beltzari hobari hori emango.

Erabaki dut; gaur esango diot amari etxera joan nahi dudala, ez dudala hemen, lau horma zuri hauen artean, hil nahi. Oraintxe pasa da medikua egunero legez eta egunero legez ezer esan gabe joan da. Amak ere, dagoeneko, ez die galderarik egiten eta zuriz jantzitako mamuak izango balira bezala egiten dute eguneroko sartu irtena. Arnasa sakon hartu (ahal dudan sakonen) eta hor bota diot amari hitzez osatutako zurrumbiloa. Begira-

begira geratu zait eta ezer esan gabe irten da gelatik. Ondorengo bost minutuak amaitezinak iruditu zaizkit baina ama itzuli denean janzteko esan eta nire arropak prestatzen hasi da. Azkenean, gela honetan bi hilabete eta erdi eman ondoren etxera noa berriro.

Ezin dut sinetsi ere egin. Kotxeko leihotik begira egin dut bidaia osoa eta itsasoa ikusi bezain laster lasaitu egin naiz; inoiz sentitu gabeko sentrazio bat izan da. Hainbat urte herbestean igaro eta gero, etxera itzultzean sentitzen den lasaitasun berbera.

Herrira iritsi bezain pronto kai aldera joan naiz eta inoiz baino ederragoa iruditu zait itsasoaren mintzoa. Haren faltan somatzen nuela esan diot eta berak ere nire beharra zuela aitortu dit. Gaixotu baino lehen ia egunero etortzen nintzen hona eta jadanik ahaztua nuen zergatik; jendeagandik ihes egiteko. Bakarrik egoteko.

Ez dut inorekin egon nahi. Badakit mila galdera egingo dizkidatela eta nik ez dut erantzunik aurkitzen, ez dut aurkitu nahi. Ilundu duenean etxera joan naiz eta han zeuden arreba eta senarra bi ilobekin eta aita-amak atera begira. Badirudi nire zain egon direla arratsalde osoan mugitu ere egin gabe eta aitak “ongi etorri” xume bat esan ondoren bere gelara egin du ihes. Beti jokatu izan du horrela arazoen aurrean. Bere gelara sartu eta ekaitza baretu arte han gordetzen da. Azken bi hilabete hauetan ere pare bat aldiz baino ez da joan ni ikustera. Askotan iruditzen zait ez ditudala seme bezala bere espektatibak bete eta badakit hein handi batean horrela izan dela baina inoiz ez du niri aurpegira esateko ausardiarik izan. Hiesa nuela jakin zuenean ere, justu-justu altxa zituen begiak egunkaritik eta ahal izan zuen bezain azkar bere gelara joan zen.

Afalorduan isil-isilik egon gara. Iloben galderaren batek noizbehinka isiltasun eramangaitz hori hausten zuten baina hala ere afaltzen amaitu bezain azkar nekatuta nengoela esan eta nire gelara joan naiz.

Ohean etzanda nengoela, arnasik gabe geratu naiz, zorabiatuta eta konszientzia berreskuratu orduko konturatu naiz berriro ere non nagoen, berriro ere hasi dela amesgaiztoa.

Alde batera begiratu eta ama ikusi dut negar-zotinka arrebaren alboan. Bihar ebakuntza egingo didatela azaldu dit nigarrari eutsi ezinik. Lasai egoteko, aurrekoetan bezala, honako honetan ere onik aterako naizela. Amari ez dudala lehen bezala bizitza guztia aurretik ikusten esan diot, nire amaiera gertu nabaritzen dudala, ez dudala promesarik nahi, ez dudala damurik nahi, maitasun keinu bat besterik ez. Gauean ez dut ia lorik egin eta goizean goiz eraman naute ebakuntza gelara.

Bada hilabete ebakuntza egin zidatenetik eta oraindik ez naiz esnatu. Hala ere, nire inguruan gertatzen den oroz ohartzen naiz. Ama eta arreba egunero etortzen dira bisitan Arreta Intentsiboko Unitateko seigarren kutxara. Etengabe hitz egiten didate eta nik ezin dut entzun baino egin, saiatu arren keinu bat bera ere ezin dut egin egoera honekin amaitu dezatela eskatzeko; nire agonia ez dezatela luzatu erregutzeko.

Gaur arrebak irrati-kaseta ekarri du eta piztu orduko itsasoaren zurrumurru ederra aditu dut. Ez da dena nik nahi bezala amaitu baina gela itxi honetan egonda ere, orain lasai nago.

Urrunean, geroz eta urrutiago, amaren ahotsa entzuten dut arrebarekin hizketan. “Bitartean heldu eskutik, eskatzen zigun lehen. Ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi, maitasun keinu bat besterik ez”. Eta horrela izan da.